



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2014ko MARTXOAREN 25ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2014ko otsailaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen dute: Koldobika Jauregi Zinkunegi eta Leire Otegi Elola.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2013ko otsailaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2013 ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
- 5. Tolosaldeko Gure Esku dago Taldeak eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 6. Kirol Patronatoak 2013 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren berri ematea, hala bada.**
- 7. Belako publizitatea eta komunikazio elkarteak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Garaikoetxe baserrian txakolindegi bat egiteko obra baimenaren luzapena eskaera, X.U.**
- 9. Amalur etxea margotzeko obra baimena eskaera, I.U.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

10. Tolosaldea Garatzen Elkartean, partizipazio aldaketaren onespena, hala bada.
11. Beste batzuk.
12. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko otsailaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuak aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

09/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 27koa, I.Z. jaunari baimena ematea, bi pinudi atera behar duenez, hauek garraiatzeko herri bidea erabiltzeko onespena ematea, ebazten duena.

10/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 27koa, A. andreari jakitera ematea pinudia ateratzeko, herri bidea erabiltzeko baimena eskatu behar duela, ebazten duena.

11/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 27koa, A. andreari baimena ematea, pinudia atera behar duenez, hau garraiatzeko herri bidea erabiltzeko onespena ematea, ebazten duena.

12/2014 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 17koa, Faktura txikien zerrenda onartu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

13/2014 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 19koa, 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- SOLRED	130,78€
- TOLOMENDI	122,40€
- LABUR	202,15€
- IZADI	152,94€
- ENEKO ITURBE	200,00€
- EUSKAL EGURRA, S.L.	121,00€
- EBA ERKIZIA	131,31€
- HOSVER	605,00€
- VAILLANT	129,13€
- AUDAX	490,95€
-AUDAX	181,84€
- REPSOL	427,20€
- REPSOL	1.091,14€
- REPSOL	377,57€
- GAS NATURAL FENOSA	201,22€
- GAS NATURAL FENOSA	199,98€
- GAS NATURAL FENOSA	814,89€
- GAS NATURAL FENOSA	202,24€
- GAS NATURAL FENOSA	947,70€
- GAS NATURAL FENOSA	345,79€
- GAS NATURAL FENOSA	730,63€
- MOVISTAR	207,74€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **8.013,60** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2013 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren batzarkideei 2013 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2014/13 zenbakia duen eta 2014ko martxoaren 19an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

2014/13 DEKRETUA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2013-12-31n:		54.330,98
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		44.169,06
Aurrekontuko zordunak :	42.937,46	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.231,60	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2013-12-31n:		77.618,05
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	57.522,26	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	20.095,79	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		20.881,99
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidua (4-5):		20.881,99
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		20.881,99
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		21.095,74
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-464,60
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		20.631,14
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		81.000,82
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		21.730,42
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		102.731,24



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

BOSTGARREN PUNTUA
TOLOSALDEKO GURE ESKU DAGO TALDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA
ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Gure esku dago Taldeak eginiko eskaera, non azaltzen duten "Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela" eta horretarako hainbat ekitaldi antolatzen ari direla, hauen artean garrantzitsuena, ekainaren 8an izango da, bertan 123km-ko giza-kate erraldoia egin nahi da, Durango eta Iruña batuko dituen. Ekimen hau puntuala denez eta ekimen hau aurrera atera dadin bultzatzeko, Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dute.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Gure esku dago taldeari 50€tako diru-laguntza ematea.

SEIGARREN PUNTUA
KIROL PATRONATOAK 2013KO URTEAN JASOTAKO DIRU-
LAGUNTZAREN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Kirol Patronatoak 2013 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapena prestatu duela. Ondorengoa izanik:

GASTUAK:

1.SAN ISIDRO:	740€
2.ALKIZAKO FESTAK:	770€
3.SAN MARTIN:	250€
4.SAN SILVESTRE:	250€
5.PREMIOENTZAT MAHAIA	140€
GUZTIRA:	2.150€

SARRERAK:

1.UDALEKO EKARPENA:	1.920€
2.AURREKO URTEAN SOBRATUA:	230€
GUZTIRA:	2.150€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Kirol Patronatoak aurkezturiko 2013 urteko diru-laguntzaren kitapena onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
BELAKO PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIO ELKARTEAK EGINIKO
ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2014 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza moduan harpidetza eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udala, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA
GARAIKOETXE BASERRIAN TXAKOLINDEGI BAT EGITEKO OBRA
BAIMENAREN LUZAPENA ESKAERA, X.U.

Ikusirik X.U. jaunak eginiko eskaera, non Garaikoetxe baserrian txakolindegi bat egiteko baimena eman zitzaion 2013ko ekainaren 25ean egindako Udalbatzarrean. Obra guztia amaitzeko 12 hilabeteko epea eman zitzaiolarik. Obra faseka burutzen ari denez, Udalbatzak emandako epean ezin duenez egin, obra bukatzeko 12 hilabeteko luzapen baimena eskatzen du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.U. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Garaikoetxe baserrian txakolindegi bat egiteko obra baimena 12 hilabetez luzatzea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri X.U. jaunari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARREN PUNTUA
AMALUR ETXEA MARGOTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.U.

Ikusirik I.U. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Amalur etxearen fatxada margotzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- I.U. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da Alkizako Amalur etxearen fatxada margotzeko obra baimena ematea, ondorengo baldintzak bete beharko duelarik:

- 112/2012-ko ekainaren 26-ko dekretuaren 9º artikulua dioena:

9. artikulua.– Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonen betebeharrak.

Obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak ekoizten dituzten eta haien jabe diren pertsonak betebeharrak hauek dituzte:

a) Hondakinen ekoizleek, edo, hala dagokionean, haien jabe direnek, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, honako hiru frakzio hauetan, gutxienez:

1.– Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arroka (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).

2.– Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.

3.– Hondakin ez-arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.

b) Hondakinen jabe den pertsonak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.

c) Ekoizleak eraikuntza- eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dizkio Udalari.

- Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-n LEHENTASUNEZKO EROSKETA ESKUBIDEARI UKO EGITEKO ADIERAZPENA, HALA BADA

Ikusirik, Tolosaldea Garatzeneko Administrazio kontseiluak 2014/03/13ko datan osatutako txostenean 0,1 euroko balio nominala duten 62.830 akzio berri jaulkiz SEI MILA BERREHUN ETA LAROGEITA HIRU EURO-tako (6.283,00) kapital zabalkundea proposatu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Kapital zabalkundeko proposamen horren aurrean, Alkizako Udalak lehentasunezko erosketa eskubidea erabiltzeari uko egitea erabaki duela, Kapital Sozietateen Legeko 304 artikulua aurreikusten duenaren arabera.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

11.1. TOLOSALDEA GARATZEN S.A.-n KAPITAL MURRIZKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, Tolosaldea Garatzeneko Administrazio kontseiluak 2014/03/13ko datan osatutako txostenean 0,1 euroko balio nominala duten 62.810 akzio amortizatuz SEI MILA BERREHUN ETA LAROGEITA BAT EURO-ko (6.281,00) kapital murrizketa proposatu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Kapitala murrizteko proposamen horren aurrean, eta akziodun moduan eragiten dion neurrian, Alkizako Udalak, kapital murrizketa proposamen horretan aurreikusten den moduan egitea, onartu duela, Kapital Sozietateen Legeko 329 artikulua aurreikusten duenaren arabera.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluari ematea.

11.2.TOLOSALDEA GARATZEN –i 2013 EKITALDIARI DAGOKION EKARPEN BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2014ko martxoaren 10ean Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko idatzia, non Alkizako Udalarik 2014 urteari dagokion ekarpena 3.750,16 eurotako dela jakitera ematen du, lehenengo ekarpena, 1.875,08 eurotako burutzeko eskatzen duelarik. Bigarrenengo ekarpena irailaren 30erako egin beharko delarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen-i 2014 urteko ekitaldiari dagokion ekarpena onestea, 3.750,16 eurotako delarik, eta lehenengo ekarpena burutzea, 1.875,08 eurotako kopuruan.

BIGARRENA.- 2014 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

11.3. BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN ATERATZEN DIREN UREN ANALISIA LABUR S.L. –ri(Laboratorio de Aguas y residuos, S.L.) ESLEITZEA

Ikusirik Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den ura ez dela analizatzen, Ur Agentzira hauen analitikak hiru hilabete behin igorri behar direlarik, baina ur analisiak hilero egin behar dira..

Ikusirik LABUR S.L. ri eskatu zaiola ur araztegitik ateratzen den ura analizatzeko aurrekontu bat, gutxi gora behera, 150 euro izanik (BEZ gabe).

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantatik ateratzen den uraren analisiak egiteko LABUR S.L. ri esleitzea, ur analisiak hileroko direlarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

11.4. HAUR PARKEAREN BERRITZE INTEGRALA EGITEKO LANEN ONESPENA ETA ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Haur parkea oso egoera kaxkarrean dagoela. Lurra eta jolasak zaharkituak gelditu direlarik.

Kontutan izanik 2013ko abenduaren 13an Diputatu nagusiak Alkizako Udalari 29.499,00 eurotako diru-laguntza bat ematea erabaki zuela, 40/2013 Foru Dekretuaren babasean, Alkizako Haur parkearen berritze integrala obra egiteko.

Ikusirik Eneko Iturbe Udal Arkitekto teknikoak Jolas tokiaren eraberritzea proiektua prestatu duela.

Ikusirik Garra S.L. -k aurkeztu duela lan hori egiteko aurrekontu bat, guztira 32.884,17 eurotako.

Ikusirik esleitu behar diren lanak, "kontratu txikia" direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eneko Iturbe Udal Arkitekto teknikoak eginiko, haur parkearen berritze integrala proiektuaren onespena.

BIGARRENA: Alkizako Haur parkearen berritze integrala deritzon lanak, GARRA S.L. enpresari esleitzea, 32.884,17 euroko diru-kopuruan (BEZ barne).

HIRUGARRENA: 32.884,17 euroko gastua onestea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

11.5. UDALETAKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETARI DAGOZKION JARDUERETAN ENPLEGUA BULTZATZEKO PROGRAMAREN BABESEAN, HERRI LANGILE BAT HAUTATZEKO ERABAKIA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretua, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearen Gipuzkoako udalei laguntzeko programa bati esker, Alkizako Udalak Herri langile modura jarduteko lan kontratua egin ahal izango duela.

Ikusirik 2013ko azaroaren 19 ko 41/2013 Foru Dekretua, tokiko enplegu planari laguntza gehigarria emateko programa kudeatzeko baldintzak arautzen duenaren 5.4 artikulua dioena:

“.../... Aurrekoa hala izanik ere, udalaren kasuan , aukera izango dute, hala nahi izanez gero, 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren arabera emandako laguntzei begira egindako hautaketa prozesuaren ondorioz sortutako itxaron zerrendetan gelditu ziren pertsonak kontratatuzko. 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuak arautzen ditu udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearen Gipuzkoako udalei laguntzeko programa kudeatzeko baldintzak (2013ko uztailaren 29ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 143. Zenbakia).

Ikusirik, 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren arabera emandako laguntzei begira egindako hautaketa prozesuaren ondorioz itxaron zerrenda gelditu zela, ondorengoek osatuta:

- 1.C.S.
- 2.J.I.G.
- 3.M.G.
- 4.J.D.

Ikusirik, Alkizako Udalak kontsulta egin duela LANBIDEN goian aipaturiko itxaron zerrendan agertzen diren pertsonak bertan inskribatuak dauden jakiteko.

Kontutan hartuta LANBIDEKO erantzuna, non aipaturiko itxaron zerrendatik J.D. jauna ez dagoela LANBIDEN alta emanda.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Azaroaren 19ko 41/2013 Foru Dekretuaren babesean, non, Alkizako Udalak Herri langile modura jarduteko lan kontratua egin ahal izateko, 2013ko uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren arabera emandako laguntzei begira egindako hautaketa prozesuaren ondorioz itxaron zerrendak erabiltzeko onspena ematea, zerrenda ondorengoek osatzen dutelarik:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 1.C.S.
- 2.J.I.G.
- 3.M.G.

BIGARRENA: C.S. andrea, jornada osoaz, eta 5 hilabeteko iraupenarekin, herri langile lanak egiteko kontratua egiteko onespena ematea. Honek, lanpostuari uko egingo balio zerrendako hurrengo kontratatuko litzateke, eta horrela, zerrenda erabiliko delarik azkenean norbaitek lanpostua hartu arte.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri C.S., J.I.G., M.G. eta J.D. jaun/andreei ematea.

11.6.2014 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2014 urterako udal zergen eta tasen hobariak onestu direla, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2014ko otsailaren 3an deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2014ko otsailaren 28a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean bost hobari eskaera egin direla, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik.

Ikusirik, bost eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2014 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2014 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2014 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2014 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA: M.K.M. andreak egin duen 2014 urterako ondasun higiezinaren gaineko zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

BOSTGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

12.1. AIZTONDORA EGUNA 2014-RI ATXEKIMENTUA.

Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Apirilaren 26an Larraulen burutuko den Aiztondora Elkartasun Egunari atxikimendua ematea, bertan antolatuko diren ekimenetan parte hartuz.

BIGARRENA: Udalerriko herritarrei, apirilaren 26an Larraulgo herrian antolatuko diren ekimenetan parte hartu dezaten gonbitea luzatzea.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.